

Asisko gutuna

2015ko Ekaina. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

80. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Espiritueltasuna egiazki bilatzen dutenen artean sarri entzuten da benetako espiritueltasunarekiko galdera: nire bilaketa ongi bideratu ote dut?, hau ote da bidea?, nola jakin ez nabilela bide okerretik?

Asisko Frantziskok, Nazareteko Jesusi jarraiki, hitz gutxitan laburtzen digu erantzuna: Egiazko espiritueltasuna maitatzea da.

Gogoetarako gaia

Maita ezazue elkar

Ez da erraz maitasunaz jardutea. Denok dugu esperientzian, nola zentratzen eta bizirik sentiarazten gaituen maitatuak garelako jakiteak, bai eta nola hausten gaituen ere arbuiauak eta zapuztuak izateak. Badakigu, halaber, nolako lanak ematen dizkiguten harremanek, bai familian eta bai mugitzen garen ingurune ezberdinetan.

Horregatik, maitasunaz jardutea geure izatearen arrazoia (maitatzeak digu bizia ematen, eta maitatzeko gara bizi) ematen duen ardatzaz mintzatzea da, baina baita hura sakonean bizitzeko ditugun zailtasunez mintzatzea ere.

Maitatzeko gai ez izate hori geure zauri eta beldurretatik dator. Izan ere maitasunak babesik gabe gelditzera, emanak bizitzera eta konfiantza osoa izatera garamatzen bezala, beldurrak konfiantza falta izatera, geure burua babestera, distantziak gordetzera eragiten digu. Badakigu beldurra motor indartsua dela eta konponezina maitasunarekin, honek konfiantzazko ingurunea behar baitu:

ezin daiteke maitatu erdizka, beldurrarekin, “bada ez bada ere” batekoa maukan gordetzen dugula.

Hala ere, denok dakigu zein anbiguoak diren geure maitasunak, zeintzuetan hainbat beldur... nahasten baitzaizkigu. Horregatik premiazko dugu aitortzea ez dakigula maitatzen, egoera eta pertsona batzuek blokeatu egiten gaituztela, “geure onetik ateratzen”, geure alderik txarrenari diotela eragiten. Beharrezko dugu maitatzen ikasiz joatea, eta horrek maitatu nahi izateko ... gogoia eskatzen du, horretan baitoakigu bizia. Maitatzeko gauza ez bagara, badu zentzurik gure bizitzak?

“Maitasunak dena dezake” esaten digu Paulok, eta hori egia da; baina horrek ez dizkigu kentzen zailtasunak, gatazkak, zauriak ... Baina baldintzarik gabe, bekatu dagigunean ere, maitatuak garelako jakiteak indarra ematen digu zailtasun eta ezinetan ez gelditzeko, aitzitik are kalte egiten digutenak ere maitatzeko ahaleginak egiteko. Zeren eta horrela izan baikara gu ere maitatuak. Horrelaxe maite gaitu Jainkoak.

Bibliako pasarteak: 1 Jn 4,7-9.11.16.18.21

Ene maiteok, maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoarengandik baitator, eta maite duen oro Jainkoarengandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez daki deus ere Jainkoaz, Jainkoa, maitasuna baita. Hara nola agertu den Jainkoaren gureganako maitasuna: Jainkoak bere Seme bakarria mundura bidali zuen, beronen bidez bizia izan dezagun... Jainkoak horrela maite izan bagaitu, guk ere maitatu egin behar dugu elkar... Jainkoa maitasuna da, eta maitasunean dirauena Jainkoarekin bat eginik dago eta Jainkoa harekin. Maitasunean ez dago beldurarentzat tokirik, baizik eta maitasun beteak kanpora botatzen du beldurra, beldurra zigorra espero duenari baitagokio; beldur dena ez da maitasun betera iritsi... Hauxe da harengandik hartu dugun agindua: Jainkoa maite duenak maita dezala bere senidea ere.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Jaunak dio: *Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto zaituztenei eta egin otoitz pertsegitzen zaituztenen eta izen ona kentzen dizuetenen alde* (Mt 5,44). Hau da etsaia benetan maite duena: hark egiten dion irainarengatik mintzen ez dena, baizik etsaiaren arimako bekatua dela eta Jainkoaren amodioz samintzen dena. Eta erakuts biezaio maitasuna obraz” (Ahol 9).

Frantziskok dio: Benetan maitatu, maitatua eta arras liberatua eta osoro sendatua izanaren oroipena bizirik mantentzen duenak maitatzen du, eta *maitasun horren oroipenagatik* beldurrik ez duenak bere burua on eginez alferrik galtzeko, ez eta desengainatua gelditzeko ere, ontasunagatik bizitza galtzen badu ere. Benetan maitatu, kalte egin diotenen alde otoitz egiten duenak maitatzen du, eta maitasun eta otoitz horren bitartez guztia entregatzen eta Maitasun den Jainkoagan atsedean hartzen duenak.

Benetan maitatu, bere burua gorroto eta ezinikusietan endredatzen uzten ez duenak maitatzen du, eta mendeku hartu edo kalte orde kaltea ordaindu nahi ez duenak. Benetan maitatu, egin dioten iraina bihotzean obsesiboki gordetzen ez duenak maitatzen du, horrela irain horren menpean ez erortzeko eta anaiari etsai gisa ez begiratzeko. Benetan maitatu maitatzen du, laidotua izatean bere bihotza hartutako kaltean ez zentratzea hautatzen duenak, baizik eta bere buruari galdetzen dionak, nola gordeko duen begirada gupidatsu eta sendatzailea, Maitasun den Jainkoaren antzera.

Otoitza

Zisne urdin eta arrosa arrosaren
grazia delikatua maitatzea;
egunsentiaren argia maitatzea
eta irekitzen diren izarrena
eta zabaltzen diren irribarreena ...
Zuhaitzaren betea maitatzea,
uraren musika maitatzea
eta frutaren gozoa
eta arima ez tien samurra ...
maitagarri dena maitatzea ez da maitasuna:
Maitasuna izan,
norbera burkotzat jartzea da
eguneroko nekerako;
eguzki bizi gisa jartzea
hazi itsuaren irrikan, haziak
argiaren norabidea galtzean,
bere lurak atxikita, bere lurak berak
menderatuta ... Maitasuna izan,

bide-nahaspilak ilunpetan askatzea da:
Maitasuna izan, bide eta eskailera izatea da!
Maitasuna izan, min ematen diguna,
barrutik odolusten zaiguna,
maitatze hau da.
Maitasuna izan, gauaren erraietan sartu
eta ernez doakion izarra igartzea da ...
Izarraren itxaropena! ...Maitasuna izan,
zain beltzetik maitatzea da.
Maitasuna izan, barkatzea da; eta barkatzea baino
gehiago dena, konprenitzea ...
Maitasuna izan, gurutzeari atxikitzea da,
eta gurutzean iltzatzen
uztea,
eta hiltzea eta berpiztea

Maitasuna piztea da!

Dulce María Loynaz

Gutuneko azken hitzak

“Maita ezazue elkar bihotzez senide on bezala, elkar nork baino nork maiteago izaten saiatuz” (S. Paulo)

2015ko ekaineko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate ekaineko erreferentzia guztiak:

| | | | | |
|----------------|----------------------|-------------------|------------------|----------------------|
| 1.Mk 12,1-12 | 7 Mk 14,12-16.22-26a | 13 Mt 5,33-37 | 19 Mt 6, 19-23 | 25 Mt 7, 21-29 |
| 2 Mk 12,13-17 | 8 Mt 5,1-12 | 14 Mk 4, 26-34 | 20 Mt 6, 24-34 | 26 Mt 8, 1-4 |
| 3 Mk 12,18-27 | 9 Mt 5, 13-16 | 15 Mt 5,38-42 | 21 Mk 4,35-40 | 27 Mt 8, 5-17 |
| 4 Mk 12,28b-34 | 10 Mt 5,17-19 | 16 Mt 5, 43-48 | 22 Mt 7,1-5 | 28 Mk 5, 21-24.35-43 |
| 5 Mk 12, 35-37 | 11 Mt 5,20-26 | 17 Mt 6,1-6.16-18 | 23 Mt 7, 6.12-14 | 29 Mt 16, 13-19 |
| 6 Mk 12, 38-44 | 12 Jn 19,31-37 | 18 Mt 6, 7-15 | 24 Lk 1,57-66.80 | 30 Mt 8,23-27 |

Ekainean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 25an izando da 19:30tan